



IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una revista en formato digital que publica artículos relacionados con los procesos de enseñanza y aprendizaje, a través de Internet y bajo la licencia Creative Commons.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una publicación seriada, gratuita y libre de ser impresa que cada seis meses divulga artículos científicos, propuestas didácticas y artículos de opinión sobre cuestiones relativas al mundo de la didáctica.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, asume como objetivo principal la difusión del conocimiento pedagógico y de metodologías didácticas que favorezca la expansión de prácticas de educativas efectivas.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una revista bilingüe, abierta a propuestas de autores y autoras que deseen publicar trabajos inéditos tanto en euskara como en castellano.

IKASTORRATZA. Didaktikarako e-aldizkaria

IKASTORRATZA. e-journal on Didactics

IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica

ISSN: 1988-5911 (Online) Journal homepage: <http://www.ehu.es/ikastorratza/>

Ikasleak Wikipedian editore izatearen onurak ikasketa prozesuan

Eneko Bidegain¹, Idurre Alonso², Jon Mentxakatorre³

¹Mondragon Unibertsitatea
ebidegain@mondragon.edu

²Mondragon Unibertsitatea
ialonso@mondragon.edu

³Mondragon Unibertsitatea
jmentxakatorre@mondragon.edu

To cite this article:

Bidegain E., Alonso I., Mentxakatorre J. (2023). Ikasleak Wikipedian editore izatearen onurak ikasketa prozesuan. *IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica*, 31, 24-45. DOI: 10.37261/31_alea/2

To link to this article:

https://doi.org/10.37261/31_alea/2

Published online: 30 Sept. 2023

Ikasleak Wikipedian editore izatearen onurak ikasketa prozesuan

Benefits of students being Wikipedia editors in the learning process

Eneko Bidegain¹, Idurre Alonso², Jon Mentxakatorre³

¹Mondragon Unibertsitatea
ebidegain@mondragon.edu

²Mondragon Unibertsitatea
ialonso@mondragon.edu

³Mondragon Unibertsitatea
jmentxakatorre@mondragon.edu

Laburpena

Ohikoa da ikasleek Wikipedia erabiltzea lanak egiteko, informazio iturri gisa edota zuzenean kopiatuta. Ikerketa honetan esperimentu bat egin da unibertsitateko ikus-entzunezko graduko lehen urtekoekin, lau urtez jarraian: euskarazko Wikipediako editore lanetan jarri dira, ikasgaietako batean landu beharreko konpetentziak garatzeko metodo gisa. Denen artean 412 artikulua sakon sortu edo garatu dituzte. Ariketa bukatu ondoren ikasleei pasatako galdetegian, eta ikasle batzuei eta irakasleei egindako elkarrizketan jaso denaren arabera, ariketa horrek balio izan die hainbat konpetentzia lantzeko, besteak beste idatzizko komunikazioa eta dokumentazio lana. Publikoki agertutako lana izateak ikasleen motibazioa eta erantzukizuna eragin ditu. Wikipediako artikulua editatzerakoan, ikasleek ardura handiagorekin eta sakontasunez lan egin dute, eta ulertu dute zein garrantzitsua den iturri fidagarriekin lan egitea.

Hitz gakoak: ikasketa, Wikipedia, konpetentziak, unibertsitate hezkuntza

Abstract

It is common for students to use Wikipedia for their work, either as a source of information or by copying it directly. In this study, an experiment was carried out with first-year university audiovisual degree students for four consecutive years; they started working as Wikipedia editors in Basque as a method for developing the skills to be worked on in a subject. Among them, they have created or developed 412 in-depth articles. Once the exercise was over, in the questionnaire given to the pupils, and according to the interview with some pupils and teachers, this exercise has helped them to work on different skills, including written communication and documentation work. The fact that it has been made public has generated motivation and responsibility on the part of the students. When editing Wikipedia articles, students have worked with greater responsibility and depth, understanding the importance of working with reliable sources.

Key words: learning, Wikipedia, competences, university education

1. Sarrera

Wikipedia ikasleek maiz erabiltzen duten baliabidea da edozein lan egin behar dutenean, informazio iturri gisa. Wikipediak kezka eragin dezake hainbat irakasle edo gurasorengan: ikasleak dagoena kopiatzera mugatzen direla eta ez dutela informazioa barneratzen; Wikipedian edozeinek idatz dezakeela eta, beraz, ez dela fidagarria; euskarazko edukiak urriago direla erdarazkoak baino... Beste batzuen begietan, aldiz, Wikipedia tresna egokia izan liteke erabiltzaileak, pasibo izateko ordez, aktibo bihurtuz gero: ikasleak Wikipediako editore ere izateak bestelako konpetentzia batzuk garatzeko aukera eman lezake. Unibertsitateko ikasleekin halako ariketa egin zen, hainbat konpetentzia lantzeko, besteak beste dokumentazio lanari eta iturri egokien identifikazioa eta aipatzeari lotutakoa eta idatzizko komunikazio egokia.

Artikulu honetan azalduko da lau ikasturtez jarraian egindako ariketa hori, ikus-entzunezko komunikazioko graduko lehen mailako ikasleekin. Ikasleek ikasturte bakoitzean sei astez garatu zuten proiekturen baten deskribapena eta hark ikasleengan eragin zuenaren ikerketa egingo da hurrengo lerroetan. Ikerketak argitu nahi du ea ikasleak Wikipediako editore lanetan jartzeak balio duen zenbait konpetentzia garatzeko.

2. Marko teorikoa

Wikipedia ez dela kontsultarako webgune soila azaldu dute Blas eta Zamorak (2019). Alabaina, informazioa bilatzeaz harago, hezkuntza baliabide gisa erabil litekeela azpimarratu dute. Haiek bezala, beste hainbatek ere esperimentatu dute Wikipediaren erabilera hori, ikasgelan. Claes eta Escobarrek (2020) diote Wikipediaren erabilerak erakutsi duela onuragarria dela unibertsitateko ikasketak egiten ari diren ikasleen ikaste prozesuan eta elkarren arteko diskurtso kolaboratibo eta irekiren baten eraikuntzan (Claes & Escobar, 2020: 246).

Baina horra iristea bera bide aski luzea izan liteke. Batetik, ikasleek berek ez dute jaso Wikipediari buruzko prestakuntzarik (Obregon-Sierra & Gonzalez, 2020: 23). Bestetik, Hezkuntza arloan, Wikipedia ez da erabili ikasleen konpetentzia digitalak garatzeko tresna gisa (Ricaurte-Quijano & Alvarez, 2016: 64). Horrez gain Wikipedian editatzen hasi aurretik, ikasleek uste zuten edozeinek parte har zezakeela, baina funtzionamendua lausoa zela (Sahut eta Karen, 2015: 9).

Izan ere, irakasle guztiek ez dute jarrera bera Wikipediari dagokionez: gehiago dira erabilgarritasuna ikusten diotenak, aurkakoa baino, baina ezin erran gehiago handia direnik (Aibar et al., 2015: 5): irakasleen erdia baino gutxiagok uste du erabilgarria dela irakasteko, eta bostetik batek baino gutxiagok du kontrako iritzia; aldeko eta aurkako jarrerak parekatuagoak dira Wikipediak ikasleei tresna berriak ematen dizkielako edota ikasten laguntzen dielako usteari buruz (herenak uste du baietz eta laurdenak ezetz). Antzeko proportziotan dabilta Wikipediaren ebaluazio sistemaz fidatzen direnen eta ez direnen kopuruak ere. Horiek horrela, Wikipedia erabiltzea inoiz gomendatzen ez duten irakasle kopurua maiz gomendatzen dietena baino handiagoa da, ia erdiak ez duelako gomendatzen, eta laurdena baino pixka bat gehiago direlako gomendatzen dutenak. Are gehiago, irakasleen erdia iturriak aipuetan sartzearen aurka daude (Aibar et al., 2015: 6-7). Ikerlariaren ondorioa da unibertsitateko irakasleek ez dutela ezagutzen Wikipediaren edizio sistema (Aibar et al., 2015: 7). Izan ere, gomendatzen dutenen artean, Obregon-Sierrak eta Gonzalezen arabera (2020: 23), irakasleek ikasleei gomendatzen diete tentuz kontsulta dezatela. Ricaurte-Quijano eta Alvarezek (2016: 64) uste dute aipatutako irakasleen deskonfiantza hori lotuta dagoela ikasleek Wikipedia erabiltzen ez ikasi izanarekin. Iritziak iritzi, Wikipedia proiektuak komunikaziorako materiala eta baliabideak ugaritzen ditu irakasleentzat (Alcazar, Bucio eta Ferrant, 2018); horrez gain, hezkuntzan erabiltzeak mesede egiten die Wikipedia mugimenduari eta hezkuntzaren helburu orokorrei (Alcazar et al., 2018: 33), “kritikotasun eraikitzailea eta kolaborazioa” eragiten dituen tresna delako, eta hori, “iturri fidagarrietan” oinarrituta; horregatik, Alcazar, Bucio eta Ferranten (2018: 34) ustez, Wikipedia baliozko tresna berria da ezagutza zabaltzeko, ikasteko eta irakasteko. Are gehiago, irakasleentzat “aukera” ere badela diote, bizitza osorako ikastuna izango den belaunaldiari begira. Erabilera praktikoagoa ere ikusi diote Magdaleno eta Garcíak (2013: 21): Wikipediako orriaren historikoaren bitartez, ikasle bakoitzaren lanaren jarraipena egiteko aukera dago (nahiz eta beste tresna batzuek ere aukera bertsua eskaintzen duten, Google Drivek, esaterako). Ikasleentzat funtsezko aldagaia da Wikipedian idazteko lan horrek bestelako lanek baino erantzukizun handiagoa eskatzen diela. Ikasleek ardura gehiagorekin idazten dute beren testuak publiko zabalak irakur eta alda ditzakeela kontuan hartuta, Forte eta Bruckmanen (2006: 187) arabera. Izan ere, Lersundik (2023) dioen moduan, ikasgairen batean alfabetatzeak esan nahi du batetik, jakintza-arloko ezagutza eraikitzeko erabiltzen diren askotariko generoen ekoizle bihurtzea (Van Kampen et al., 2020); eta bestetik, gero eta gaitasun handiagoa izatea ikasgai horri dagozkion ezagutzak estilo egokian adierazteko, komunikazio-moduen berariazko helbururak lortzeko egokiak diren generoak erabiliz (Meyer et al., 2018; Coyle eta Meyer, 2021; Morton, 2020; Beacco et al., 2015). Gisa berean, ikasleek gaia hobeto ulertzeko

betebeharra eragiten du sortzen dituzten edukiak publikoarentzat izateak, Sarasaren ikerketaren arabera (2006: 440-441). Horrez gain, lan horrek motibazioa handitzea ere eragin zuela dio. Halaber, beren esfortzua baliagarri dela ikusteko modua da Wikipediarako idaztea (Magdaleno eta García, 2013: 21).

Erantzukizun horri lotuta dago egiten duten artikulua beste batek editatzea eta hori onartzea. Bravo eta Youngek (2011) aztertu dute ikasleek nola erreakzionatzen duten berek sortu edo osatu duten edukia beste norbaitek editatzen duenean. Hasieran, ikasleek beren artikulua beste batek editatu edo ezabatu zezakeelako beldurra adierazi zuten (Bravo and Young, 2011: 8). Aldaketak egiten zitzaizkienean, batzuei ez zitzaien axola, beste batzuk atsekabetuta zeuden, beren lana ona zela uste zutelako eta beste batzuek aldaketak ongi hartu zituzten, zuzenketak egokiak iruditu zitzaizkielako (Bravo and Young, 2011: 8). Beren artikulua beste batek editatu gabe gelditu zenean, desabantaila gisa bizi izan zuten batzuek, ez zutelako aukerarik izan Wikipediako beste erabiltzaile batzuekin kolaboratzeko (Bravo and Young, 2011: 9). Gisa horretan, Modu kolaboratiboan lan egitearen onura ikasi dute. Izan ere, zuzenketek bide eman zuten eztabaida orrian zeuden aldaketetatik ikasteko (Bravo and Young, 2011: 9).

Caverly eta Ward (2008) bide beretik ari dira, elkarlanean lan egitearen onurak aipatzen dituztenean. Haien ustez, elkarrekin eraikitako ezagutza mesedegarria da ikaste prozesu horretan. Meseguer-Artolak (2015) dio Wikipedia unibertsitatean erabiltzeak hainbat kompetentzia lantzen laguntzen duela: talde lana, testuak idaztea eta ulertzea, analisiak eta sintesiak egiteko gaitasuna, eta abar (Meseguer-Artola, 2015: 64). Antzeko etekinak ikusten dizkiote Obar eta Roth-ek ere (2011: 4-5).

Wikipedian editatzearen bestelako onura batzuk ere aipatzen dituzte Ricaurte-Quijano eta Alvarezek (2016: 68): pentsamendu kritikoa garatzea, hizkuntza gaitasunak hobetzea, kultura librearen balioak ezagutzea, besteak beste. Ildo beretik, idazteko gaitasunaren hobekuntza berresten dute Wheeler et al.-ek (2008: 993), eta erreferentzien garrantziaz ere ikasten dutela aipatzen dute Sahut eta Karenek (2015:14).

Wikipedian editatzearen eta idatzitakoan beste norbaitek zuzenketak egitearen ondorioz, ikasleek Wikipedia prozesua ikasi eta gunearekiko gunearekiko konfiantza handitzeko nahiz Wikipediako informaziorako kritikotasuna garatzeko aukera ere eman izan duela aipatzen dute Bravok eta Youngek (2011:10). Antzeko ondorioak aipatzen dituzte Soler, Pavlovic eta Fontek (2008) ere. Horien ikerketaren arabera (Soler et al., 2018:43), ikasleen % 70,3ren ustez, Wikipedian editatzea zeregin interesgarria da (% 43,3 ziren hori uste zutenak Wikipediako lanak egin aurretik); % 56k uste du iturri fidagarria dela (% 29,2 ziren hori uste zutenak

aurretik); % 53,1ek uste du posible dela informazio faltsua aurkitzea (% 58,8 ziren hori uste zutenak hasieran) (Soler et al., 2018:43).

3. Ikerketa galderak eta metodologia

3.1. Ikerketa galderak

Artikulu honetan ondoko ikerketa galderari erantzun nahi zaio: erakundeen eta hezkuntzaren arteko proiektu kolaboratzaileetan parte hartzeak zertan laguntzen du irakaskuntza-berrikuntza, Wikipedia adibide gisa hartuta? Zer sortu daiteke lankidetzak eta metodo horren bidez eta zein da unibertsitateko ikasleek gizarteari ekar diezaioketena, Wikipedian?

Horretarako, ikasgelan landutako proiektuaren balorazioa egin da, ikasleen eta irakasleen lekukotasunak eta iritziak jasoz eta ikasleek egindako lana aztertuz. Lanketa horretan, hainbat aldagai hartu dira kontuan: batetik, plagioarekiko jarrera; bigarrenik, hizkuntza konpetentziaren lantzea, itzultzaile automatikoaren gaia kontuan hartuta; eta, hirugarrenik ikasleen motibazioa eta lanarekiko duten zorrotasuna.

3.2. Ikerketa metodoak

Landutako proiektuaren testuinguruari dagokionez, euskarazko Wikipediarako sarrera sakonak egitea izan zen ikasleen zeregina; Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko gradu lehen mailako ikasleekin landu da proiektua, 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko maiatz-ekainean: ikasturte bakoitzean 42-52 ikasle bitartean (guztira 188) izan ziren, eta ikasleek bakarkako zein taldekako lanak egin zituzten Wikipedian.

Artikulu honetan deskribatuko da egin zuten lana, alegia prozesua eta emaitza: Wikipediako zenbat sarrera egin zituzten, zein luzerakoak eta zein puntuazio (artikuluaren izenaren azpian ageri da) lortu zuten. Proiektua bukatu eta zenbait hilabetera, ikasleei galdetegia pasa zitzaien, eta urte bakoitzeko sei ikasleri sakoneko elkarrizketa egin zitzaien: 85 ikaslek erantzun zuten galdetegia eta beste 18k elkarrizketa: orotara 103 ikasleren iritzia jaso zen (% 54ko erantzun tasa). Horrez gain, proiektuan parte hartu zuten hiru irakasleri ere egin zitzaien sakoneko elkarrizketa eta Wikipediako langile eta ikastetxeetako proiektuen dinamizatzailea den Galder Gonzalez ere egin zitzaion beste bat, hura etorri baitzen klasera Wikipedia azaltzera eta ikasleak laguntzera.

Galdetegiko eta elkarrizketetako galderen ataletako bat Wikipediari berari buruzkoa zen: zein zen Wikipediaz zuten irudia sekuentzia hori hasi aurretik, zein zen zuten irudia sekuentziaren ondoren, zein zen euskarazko Wikipediaz zuten iritzia lehenik eta ondoren, Wikipediaren zein

erabilera egiten zuten eta zein hizkuntzakoak kontsultatzen zituzten, eta zer nolakoa iruditu zitzaien Wikipedian egindako ariketa, ikaste-prozesu gisa.

Elkarrizketak grabatu eta transkribatu ziren. Galdetegietako eta elkarrizketetako erantzunak sailkatu eta multzokatu ziren galderen eta erantzunen arabera.

Ikerketaren helburua ez da emaitza kuantitatiboak ematea, baizik eta kualitatiboak. Batetik, lagina ez da esanguratsua estatistika batzuk emateko, baina datu batzuk atera litezke. Bestetik, iritziak kualitatiboak dira eta era askotakoak, ñabardurak ñabardura. Lan honetan joera nagusiak eta joera horien arrazoiak dira azalduko ditugunak. Galdetegietatik eta elkarrizketetatik ateratako erantzun kualitatiboak batera sailkatu ditugu.

3.3. Sakoneko artikulua lantzeko metodoa

Wikipedia editatzeko moduluak sei asteko iraupena zuen. Modulu trinkoa zen, klase ordu guztiak horretara bideratuta zeuden. Klase ordu batzuen helburua zen gaia lantzea, beste batzuen idazketa lantzea eta beste batzuen grafismoari lotutako gaiak latzea. Baina dena apiril bukaeratik ekain hasiera bitartean egin zen, eta Wikipediako artikulua maiztaren bukaeran argitaratu ziren.

Ikasleek, hiru edo lau taldeetan, euskarazko Wikipediako artikulua luzerik sortu edo osatu behar zuten. Hori zen ikasgaiaren helburua. Wikipediako artikulua luzeekin hasi aurretik, Wikipediak nola funtzionatzen duen azaldu zitzaien. Horretarako, euskarazko Wikipediako editoreetako bat (euskal wikilarien elkarte arduraduna) etorri zen ikasleei formazioa ematera, lau ikasturtez jarraian, 2019tik 2022ra. Hainbat xehetasun eman zituen: Wikipediaren izaera kolaboratiboa, euskararen lekua Wikipedian, entziklopedia izaera, lizentzia libreen kontua... Ondoren, Wikipediako erabiltzaile kontua sortzen irakatsi zien eta artikulurik nola sortu eta editatzen zen esplikatu.

Ikasleen lehen ariketa izan zen artikulua aski laburren bat idaztea, arratsalde batean. 2019an munduko hizkuntzaren bati buruz idatzi behar izan zuten (ikasle bakoitzak hizkuntza bati buruz), eman zitzaien zerrendatik abiatuta. 2020an, 2021ean eta 2022an emakumeren baten biografia idatzi behar izan zuten, hori ere zerrenda jakinetik abiatuta.

Ondoren, egin beharreko artikulua nagusian jartzen zuten arreta. Jarraitu behar zituzten pausoak hauek ziren:

1. Proposatutako gai zerrendatik bat aukeratzea.
2. Gaiaren atalak eta azpiatalak identifikatzea eta, pixkanaka, eskema osatzea.
3. Informazio iturri fidagarriak bilatzea. Baldintza zen ez gelditzea Google-eko bilaketako lehen emaitzarekin eta ez mugatzea Google-era. Aurkitzen zituzten edukien fidagarritasuna

baloratu behar zuten, irakasleak emandako hainbat irizpideren arabera. Eskatzen zitzairen lan akademikoak biltzen zituzten bilatzaileetan bilatzea (adibidez: Dialnet eta Google Scholar).

4. Liburutegira joatea, ikertu behar zuten gaiari buruzko liburuak bilatzeko eta kontsultatzeko.
5. Artikuluaren egitura fintzea.
6. Artikulua idazten hastea.
7. Artikulua bukatzea eta zuzentzea.
8. Taldean osatutako artikulua nagusiarekin zerikusia zuten beste bina artikulua laburrago idaztea, bakarka.

Pauso horietako bakoitzean, hainbat aldiz biltzen ziren irakasleekin eta Wikipediako editorearekin, azken hauek jarraipena egin zezaten, zalantzak argitzen lagun zitzairen edo gomendioak egin ziezazkieten. Ebaluazio irizpideetan sartzen zen, besteak beste, zuzen idaztea eta kalitatezko erreferentzia asko jartzea.

Horrez gain, artikulua batzuk gela osoarekin egin ziren, modu kolaboratibo bidez. Zehazki “berde” artikulua egin zen 2020ko maiatzean, eta “abesti”, “dantza” eta “arima” 2021eko maiatzean. Jarraitutako prozesua hau izan zen: lehenik, ikasle bakoitzak, banaka, buru-mapak egiteko sareko aplikazioren batean egin zuen gai horri buruzko artikulua eskema. 50 ikasleek egindako buru-mapak bildu, eta irakasleak eskema guztien sintesia egin zuen, eta horrekin Wikipediako artikulua sakonaren bizkarrezurra egin zuen. Bizkarrezur hori Wikipediako orrian jarri zuen, eta ondoren, ikasle bakoitzari azpiatal bat edo bi esleitu zizkion. Ikasleei goiz bat utzi zitzairen bakoitzak bere azpiatala idazteko.

Ikasleek informazioa bilatu behar zuten egokitu zitzairen azpiatalari buruz, eta gero paragrafo bat edo bi idatzi behar zituzten, irudiak gehitu, irudirik baldin bazegoen, eta erreferentziak sartu. Ikasleek beren lana egin ondoren, irakasleak eta euskarazko Wikipediako editoreek artikulua xeheki irakurri zituzten eta zuzenketak egin zituzten.

2020ko maiatzaren 26an, 52 ikasleek aldi berean editatu zuten “berde” artikulua. Goizeko 9etan eman zitzairen zeregina, eta bakoitzak editatu behar zuen egokitutako atala edo azpiatala. Tenore hartan, “berde” artikulua 3.186 bytes zituen. Bost ordu geroago, artikulua 93.985 bytes-ekoa izan zen. Ikasle gutxi batzuek ez zuten irakasleak emandako epea bete, eta ondoko orduetan egin zituzten egokitu zitzaizkien lanak. Erronka hasi eta 48 ordu geroago, artikulua 130.008 bytes zituen. Gisa hartan, “berde” artikulua euskarazko bertsioa bihurtu zen hizkuntza guztien artean gehien garatua zena.

2021eko maiatzaren 12an, 45 ikasle izan ziren aldi berean “abesti” artikulua editatu behar izan zutenak. Haiek ere goizeko 9etan jaso zuten zereginaren berri. Orduan, artikulua 3.186 bytes

zituen (kasualitatea da “berde” artikuluaen bytes kopuru ber-bera izatea). Lau ordu geroago (tenore hartan bukatzen baitzen lana egiteko berezko epea), artikulua 135.740 bytes-era igo zen, baina ikasle batzuek ez zuten epea errespetatu eta ondoko orduetan jarraitu zuten. Biharamunerako, artikulua 164.634 bytes zituen. Beste hizkuntzen oso gaintik sailkatu zen artikulua hori. Ordura arte gehien garatua zen bertsoa errusierazkoa zen, baina 90.479 bytes-ekin.

Bi artikulua horiek ikasleek sortutakoak ziren, berek bilatuta informazioa. Hain zuzen ere, batetik, espainolezko, frantsesezko eta ingelesezko bertsoak ez zitzaizien hain baliagarri, ez zirelako hain garatuak. Zehazki, “abesti” artikuluaen ingelesezko bertsoak 11.354 bytes zituen, espainolezkoak 10.608 eta frantsesezkoak 5.628. Garatuagoak ziren “berde” artikuluaen bertsoak, baina betiere euskarazkoaren azpitik. Baina, bereziki, beste hizkuntzetako Wikipedia ez zitzaien bereziki baliagarri, sortu zuten buru-eskematik abiatu zirelako, eta buru-eskema hori egitea bera beren sormen ariketa izan zelako.

Geroago, beste bi artikulua egin zituzten modu kolaboratiboan. Haatik, kasu hartan, prozesua ez zen izan hasieratik ikasleekin pentsatutakoa. Buru-eskema irakasleek egin zuten, Wikipediako beste bertsoetatik abiatuta. Ariketaren helburua zen itzultzaile automatikoa erabiltzen ikastea, hala nola testuren bat itzultzaile automatikoarekin itzuli ondoren (edozein hizkuntzetatik) euskaraz txukun uztea. Ariketa hori klasean gelditu zitekeen, edozein testurekin. Baina irakasleek pentsatu zuten Wikipediako testuak itzultzea eta Wikipedian argitaratzea.

Bi geletan egin zen ariketa. Geletako bati “arima” hitza eman zitzaion eta besteari “dantza”. Ikasle bakoitzari azpiatalen bat esleitu zitzaion, eta azpiatal hori osatzeko oinarri gisa eman zitzaion itzuli behar zuten testua, hala nola beste hizkuntzaren bateko artikulutik hartutako zatia. Gehienak ingelesetik, espainoletik edo frantsesetik itzuli behar ziren, baina baziren beste hizkuntza bateko pasarteak ere. Google itzultzaile automatikoa erabili behar izan zuten edota Elhuyarrek sortutako Aditu itzultzaile neuronala (kasu honetan, gomendatzen zen espainoletik euskararako itzulpena egiteko; ez hainbeste ingelesetik egiteko).

Ariketa hori 2021eko maiatzaren 17an egin zen. 22 ikasleek itzuli zuten “dantza” artikulua eta 23 ikasleek “arima”. Egunaren hasieran 6.059 bytes zituen lehenak, eta 1.765 bigarrenak. Goiz bukaeran, aldiz, 52.393 zituen lehenak eta 42.168 bigarrenak. Epea errespetatu ez zutenen lanak gehitu ondoren, ondoko orduetan artikulua 60.901 eta 51.276 bytes-era luzatu ziren, hurrenez hurren. Ikasleek beren zatiak idatzi ondoren, irakasleek arretaz irakurri eta zuzendu zuten dena.

4. Emaitzak

Wikipediako artikuluak sortu edo editatzeko prozesuaren helburua hezkuntza arlokoa zen; alegia, zenbait ikaste-emaitza garatzeko bide gisa proposatu zen metodo hori. Mondragon Unibertsitatean ikasgaiak eman ordez, proiektuak lantzen dira, moduluetan. Modulu bakoitzak bospasei aste irauten du (batzuk gehiago, beste batzuek gutxiago), eta modulu horietan hainbat kompetentzia eta ikasketa emaitza lantzen dira. Modulu baten izena *Komunikazio multimedia parte-hartzailea* da. Zazpi asteko iraupena du, eta komunikazioari lotutako ikaste emaitza hauek lantzen dira:

- Ekimen kolaboratiboetan parte-hartzeak duen eraginaz jabetzen da, eta gai da bere ekarpenak duen garrantziaz hausnartzeko.
- Euskararen aldeko ekimen kolaboratiboak ezagutzen ditu eta elikatzen ditu.
- Talde lanean inplikatu da, bere egitekoak arduraz betetzeaz gain besteen zereginetan laguntzeko prestutasuna erakutsi du, taldearen hobe beharrak lehenetsita.
- Iturri egokiak identifikatu eta erabiltzen ditu, zati adierazgarrienak bereizten ditu, eta era koherentean integratzen ditu idazlanetan, haien jatorria era egoki eta estandarizatuan aipatuz eta unibertsitateko lanak idazteko gidak emandako irizpideei jarraituz
- Egokitasunez eta zuzentasunez idazteko gaitasuna dauka: testu nahiko luzeak, baina ongi egituratuak idazten ditu, eta argi azaltzen ditu gizarteko gaiak
- Grafiko estatikoak ekoizteko softwarearen erabilera menperatzen du.
- Egindako proiektu parte-hartzailea sarean sustatu eta zabaldu du.

Moduluaren helburua da ikasketa-emaitza horiek guztiak lantzea, eta guztiari koherentzia ematea. Pentsatu zen Wikipedia proiektua elikatzea izan zitekeela bide interesgarria, ekimen kolaboratiboa delako, eta ikasleak aukera duelako bere ekarpenak egiteko. Horri lotuta, lehen bi ikaste emaitzek bete-betean erantzuten dute, ekimen kolaboratiboan parte hartzeak duen eraginaz jabetzeko bide gisa ikusi zelako. Halaber, euskal komunitate linguistikoaren egoera ulertzea ere bada unibertsitateak lantzen duen kompetentzietako bat, eta ikaste-emaitza honen bidez azaldu nahi izaten da zein ekimen dagoen euskara sustatzen ari dena.

Era berean, modulu honetan idatzizko komunikazioa eta dokumentazio lana funtsezko bi kompetentzia izanik, lanak eskatzen zituen bi arlo horiek ere Wikipediako artikuluen sakonen batean garatzeko aukera zegoen. Multimedia osagaiak (batez ere grafikoak, infografiak, argazkiak eta bideoak) Wikipediako orrian txertatzea ere bideragarria zen. Alde horretatik, lizentzien eta lizentzia libreen inguruko ezagutzak ere eman zitzaizkien ikasleei, Wikipediak Creative Commons lizentzia duten irudiak sartzea eskatzen baitu (eta Copyright-a dutenak debekatuta baitaude).

4.1. Ikasleek sortutakoaren datu kuantitatiboak

Wikipediari lotutako ariketa horietan, ikasleek sortutako guztia zenbatu zen. Urtez urte sortutako eta editatutako artikulak zein izan diren eta zenbat karakter gehitu den zehaztu da. Azpiko taulan ageri da urte bakoitzean zenbat artikul berri sortu zituzten, lehendik zeuden zenbat artikul garatu zituzten eta denen artean zenbat karaktere gehitu zituzten.

Taula 1. Ikasleek sortutako edo garatutako Wikipediako artikul kopuruak eta artikuluen luzerak

	Berriak	Zeudenak garatu	Orotara	Karaktereak
2019	38	17	55	406.553
2020	97	93	190	4.139.859
2021	68	99	167	1.829.680
2022	70	25	90	1.098.194
Orotara	203	209	412	7.474.286

Lehen urtean anitzez karaktere gutxiago sortzearen arrazoia zen ikasgaiaren planteamendua ez zela hainbeste bideratua Wikipedian asko idaztera. Ikasgaiak beste hainbat diziplinari eman zion garrantzia, bereziki bideogintzari. Ikasleek zenbait bideo egin zituzten Wikipediako artikuluan jartzeko, baita argazki galeriak ere. Lehen urteko artikulak hezkuntzan lantzen ziren gaiak izan ziren: euskarazko Wikipediak badu “Hezkuntza programa” izeneko gunea, eta hor biltzen dira 12/16 urte artekoek ikastetxean lantzen dituzten ikasgaiak (adibidez matematika, fisika eta kimika, literatura, filosofia...) buruzko artikulak. Euskarazko Wikipediaren urte hartako lehentasuna zen artikul mota horiek garatzea, kontuan hartuta ikastetxeetan maiz kontsultatzen diren orrialdeak direla, eta ikasleek, euskarazkoa ez bada garatua, zuzenean jotzen dutela gaztelaniazkoa/ frantsesezkoa edo ingelesezkoa.

Bigarren urtean, Wikipediako hizkuntza guztietan ezinbestez izan behar diren mila artikuluetako batzuk idaztea izan zen helburua. Wikipedia orokorrak baditu hainbat artikul zerrenda: lehen mailako artikulak dira ezinbestez egin behar liratekeen hamar artikul (adibidez: bizi, gizaki, kultura, zientzia); bigarren mailako artikulak dira ezinbestez egon behar diren ehun artikul (adibidez: historia, hezkuntza, politika). Hirugarren mailan daude

ezinbesteko mila artikulua (adibidez: Ludwig van Beethoven, maitasun, errepublika, ugaztun, Mediterraneo...).

Ezinbesteko mila artikulua horiek gutxienez 30.000 bytes-ekoak izan behar dira. Urte hartan, Wikipediaren lehentasunezko helburua zen ezinbesteko mila artikulua horiek garatzea (ia denak sortuta zeuden, baina gehienak laburregiak ziren). Erronka horri lotuta, aitzineko urtean baino gehiago idaztea egokitu zitzaizen ikasleei. Baina beste arrazoi bat ere izan zen gehiago idaztea esplikatzen zuena: COVID-19-ak eragindako konfinamenduaren ondorioz, ikasleak ezin ziren etxetik atera ariketa hori egin behar zen garaian, eta beraz asti gehiago ere izan zuten lan hori sakontzeko.

Hirugarren urtean, bigarren urteko erronka bera jarri zitzaizen ikasleei, eta artikulua anitz ekoiztu zuten orduan ere. Haatik, artikulua laburragoak izan ziren. Ikasleak ez zeuden konfinatuta, eta beraz gutxiago idatzi zuten.

Bigarren urtean, ikasleek egindako lanaren ondorioz, hilabete hartan ezinbesteko mila artikulua garapenean gehien aurreratu zen hizkuntza euskara izan zen. Sailkapenean bi puntu gora egin zuen (42. postutik 40. postura igo zen). Hirugarren urtean, 39. postuan zegoen erronka hasi zenean, eta postu berean mantendu zen hilabete bukaeran, baina 38. postutik oso gertu. Beste hizkuntza batek (espainolak) euskarak baino gehiago egin zuen aurrera urte hartan, baina gainerakoak euskararen atzean gelditu ziren.

Laugarren urtean, Wikipediak jarritako helburua beste bat izan zen: 2022ko lehentasuna laugarren mailako artikulua kopurua handitzea zen. Horiek dira ezinbestez egon behar diren 10.000 artikulua (adibidez: Theodore Roosevelt, Yasser Arafat, Cro-Magnon, Adriatikoa...). Urte hasieran, euskarazko Wikipedia urrun zegoen helburu hartatik, [1.276 egitea falta](#) baitzitzaion. Baina 2023 hasierarako [10.000 artikulua](#) egitea lortu zen. Gisa hartan, Wikipedia daukaten munduko 310 hizkuntzen artean 32. postutik 20. postura igarotzea lortu zuen euskarak kategoria horretan. Artikulu haiek ez dute 30.000 bytes-etik gorakoak izan beharrik, baizik eta 15.000 bytes-etik gorakoak. Beraz, ikasleek ariketa bakarka egin zuten urte hartan. Gisa hartan, beren ekarpena egin zioten Wikipediaren kanpaina hari.

4.2. Ikasleen ikaste prozesuaren balorazio kualitatiboa

Galdetegi bidez eta banakako elkarrizketa batzuen bidez, ikasleei galdetu diegu ea zer iruditu zaien ikasteko metodoa bera. Oro har, ikasleek metodo praktikoa horren balorazio ona egiten dute (modulu honetan eta besteetan). “Bi metodoak ezagutzea garrantzitsua da. Baina eginez gehiago ikasten da”, dio ikasleetako batek. Nahiz eta “ikasi” hitza buruz ikastearekin lotu ohi duten, beste ikasle batzuek aipatu bezala, lan praktikoa horien ondorioz asko ikasi dutela erantzun dute. Ez bakarrik aipatutako ikaste emaitzei dagokionez (gero garatuko dugu), baizik

eta zeharkako hainbat ezagutzari buruz ere. Taldeetako batek Israel-Palestina gatazkari buruz idatzi zuen, adibidez; eta talde horretako kideetako batek argitu du gatazka horri buruz asko ikasi duela. Gauza bera erran dute beste edozein gairi buruz aritu direnek ere.

Metodo horri lotuta, elkarrizketetan maiz aipatu duten beste hitza “motibazioa” da. Euskarazko Wikipediako artikuluek badute puntuaziorik, kalitatearen erakusle gisa. “Eta horrek bultzatzen zaitu puntuazioa pixka bat gehiago igotzera”, dio ikasleetako batek. Hau da, ikasle asko ez ziren konformatzen gutxi gorabeherako lana argitaratzearekin. Ilusioa egiten zien puntuazio altuenera hurbiltzeak.

Horrekin lotuta dago, halaber, erantzukizuna. Hori ikasle askok aipatu dute: “Oso ondo dago horrelako sekuentzia batean ikustea gure lana nonbait gelditzen dela eta ikusten dela. Eta ez dela gelditzen Driven edo irakaslearen bulegoan. Polita da orain Wikipedian egotea egin nuen lana. Motibazio edo ardura moduko bat daukazu, bestela ez daukazuna”, esplikatu du ikasleetako batek.

Ardura hori islatu da informazioa begiratzeko eta kontrastatzeko hartu duten lanean, zenbait ikaslek aipatu dutenaren arabera. “Oso lan sakon baten oroimena dut”, dio horietako batek. “Liburutegietara joan ginen, adituekin hitz egin genuen...”, gaineratu du. Alde horretatik, kalitateko informazioaren bila joaten ikasi dutela aitortu dute: “Askotan bilatzen dugu informazioa blogetan, webgunetan eta abar. Baina informazio baliagarrietako bat, duda barik, liburutegietan dago. Lan horretan hori ikasi dut: lan akademikoen garrantzia. Blog batean bilatzen baduzu informazioa, beti pentsatu duzu fidagarria dela, baina askotan ez da beti horrela. Askoz gehiago baloratzen ditut liburuak informazioa bilatzerako orduan”.

Ikasleetako batek gogoan du zein arazo izan zuten erabilitako iturriren baten ondorioz. Bibliari buruzko artikulua egiten ari ziren, eta iturri gisa erabili zuten Youtuben aurkitu zuten bideoa. Kontua da, bideo horretatik atera zuten informazioa norbaitek ezabatu ziela. Ez zuten ulertzen zergatik, eta berriz argitaratu zuten. Erabiltzaile hark berriz ezabatu zuen gehitutako hura. Hirugarren aldiari argitaratu zutenean, erabiltzaileak ikaslea blokeatu zuen. Ikaslea unibertsitateko bertatik ari zen editatzen; ondorioz, ikasleak erabiltzen zuten IP zenbakitik konektatuta zeuden guztiak gelditu ziren blokeatuta: alegia, unibertsitateko ikasle eta irakasle guztiak. Irakasleak erraz lortu zuen erabiltzaile harekin hitz egitea, euskarazko Wikipediaren koordinatzailearekin hitz egin ondoren (gogoratu, proiektua Wikipediakoekin adostuta eta haien laguntzarekin eramanez zela aurrera). Erabiltzaileak esan zuen artikulua saboteatu nahi zuen norbait ari zela Biblia editatzen; irakasleak eta Wikipediako arduradunak azaldu ziotenean unibertsitatean egiten ari ziren lana zela, blokeoa kendu zion ikasleari.

Zein izan zen arazoa? Iturri gisa erabilitako bideoa apaiz ebangelistaren batena zela, eta, beraz, erabiltzaileak “objektibotasun eza” ikusi zion artikuluari. Ikasleak ikasi zuen –gerora elkarrizketan azaldu digun bezala– zein garrantzitsua den iturria, eta ez duela balio Google-eko bilatzailean agertzen den lehen emaitzak (hala izan baitzen ikasleak egin zuena).

Beste batek azpimarratu du “iturri bat baino gehiago” erabili behar dela edozein lan egiterako orduan. Horrekin lotuta, iturri horien erreferentziak egitearen garrantzia ere ikasi dutela diote batzuek: “nondik atera dituzun eta nork idatzi duen azaltzearen garrantzia, errekonozimendu hori ematea...”, argitu du ikasleetako batek. Beste batek honakoa dio: “Plagioa tentagarria zen, azkenean normalizatua dago plagioa egitea. Txikitatik egin dugu. Horrelakoetan konturatzen zara “hau ez da nire lana”. Orri txuri baten aurrean topatzen zarenean, zaila da. Badakit zer den plagioa, baina lana egiterakoan oraindik kostatzen zait ez egitea edo nola egiten den ez egiteko”. Baina ikasle horrek dio, proiektu honetan ikasi duela “bilaketak egiten” eta “informazioa kontrastatzen”.

Eta horrek “plagioari buruzko sentsibilizaziora” (ikasleetako baten hitzak) garamatza. Beste ikasle batek ere bide beretik hitz egin du: “Kontzienteago nago orain. Plagioa edo egile eskubideen inguruan ikasi dugu. Beti saiatzen gara gutxinaka lanak aurrekoak baino hobeto egiten. Argazkiak zuk eginak badira, hobeto”.

Irakasleak ikasle bakoitzaren jarraipena egiteko tresnak ere eskaintzen ditu Wikipediak. Alabaina, ikasle bakoitzak erabiltzaile izena zuen, eta, beraz, irakasleek ikus zezaketen ikasle bakoitzak zenbat ekoiztu zuen, eta artikulua bakoitzean zein zen ikasle bakoitzak ekoiztutakoa. Hori erraztu ahal izateko, Wikipediak irakasleentzako barne formulario antolatua zuen, zeinetan agertzen ziren ikasleek ekoizten zituzten artikulua guztiak, ikasle bakoitzari zegozkion estatistikak, eta abar. Ikasle bakoitzaren lan kopurua ikusteaz gainera, irakasleak aukera izan du Wikipedian kanpoko baten batek egin zitzakeen balizko zuzenketen gainetik, ikasleak berak sortutakoa ikusteko (balizko zuzenketen aurreko bertsioak).

Irakasleak ere ohartu dira ikasleak motibatuagoak zeudela halako lanetan. “Beraien lanak argitaratzen dira, munduko edonork ikusi ditzake” dio irakasle batek. Lan horiek “kaxoi batean” egoteko orde, edozeinek irakurtzeko moduan egotearen ondorioz, “txukun izateaz arduratu dira”, dio irakasle horrek.

Ikasleek emandako erantzunetan, batez ere dokumentazioari lotutako ikaste emaitzari egin badiote ere zeharkako aipamena, irakasle honek dio erantzukizunez jokatu dutela idazterako orduan: “konturatu dira ez bakarrik informazio iturri egokiak hartu behar dituztela, baizik eta ondo ordenatuta eta zuzen idatzi behar dutela, eta hori garrantzitsua dela”.

Klasean hizkuntza kontuak landu dituzte: ortografia, gramatika, esaldien egitura... Nahiz eta klasean landu, Wikipedian idazterako orduan “akatsak egin izan dituztela” dio irakasle horrek: “baina berriro diot prozesu bat izan dela, eta prozesu horretan kontzientzia gero eta handiagoa izan dela”.

Beste urte batean hizkuntzaz arduratu zen irakasleetako batek ontzat eman du egin zuten lana: “kontuan izanik idaztea eta zuzentzea agian ez zela izango erakargarriena berentzako, oso lan mardulak aurkeztu zituzten, eta, orokorrean, esango nuke oso ongi egituratuak zirela testuak”. Irakasle honen ustez, Wikipedian editatzearen esperientziak balio izan du ikasleen hizkuntza maila hobetzeko. Alde batetik, euskara batuan idazteko ohiturarik edo erraztasunik ez zuten ikasleekiko lan berezia egin zuen, eta bilakaera ikusi zuen. Ergatiboarekin “oso zorrotz” jarri zen, eta “sumatu” zuen “lehenbizikotik bukaerako lanetara aldea bazegoela”. Hirugarren arazo ohikoa esaldi luzeena dela dio irakasle horrek: “Joera zen esaldi oso luzeak eta oso nahasiak osatzekoa, oro har. Orduan, horretan ere lan egin genuen. Zein inportantea den sintesi bitartez iragazkia pasatzea, uneoro pentsatuz ordenagailuaren atzean egon zitekeena, eta horren arabera lan egitea. Orduan hasi ziren askoz ere esaldi zehatzagoak eta mamiari heldutakoak egiten. Eta, bai, iruditzen zait hor aurrerapausoak eman zituztela, eta, gainera, zenbaiten kasuan nabarmen, agian hobetzeko ere margen handiagoa zeukatelako”.

Hizkuntza lantzeko metodo gisa, ikasleek berek Wikipediarako prestatutako testuetatik abiatzen ziren. Hori bera mesedegarri izan dela dio irakasleetako batek: “Gustatzen zait ez izatea bakarrik teorizazio hutsa, baizik eta berehalakoan edukitzea zirriborroan hanka sartzeko aukera. Eta iruditzen zait abantaila askoz ere handiagoak atera daitezkeela ikasle izanik, momentuan bertan azaltzen duzulako akats horien zergatia. Momentuan azaltzen duzu, adibide praktikoekin”. Ikasleek idatzitako adibideetatik abiatuz ematen zituen azalpenak (betiere klasean erakusterakoan, ikasleen anonimotasuna zainduz). “Ateratzen duzu erdarakada bat, kalko oker bat edo esaldi bat nahasiegia zena, edo ergatiboarekin egindako akatsa edo hatxearekin oraindik egiten diren hanka sartzeak, eta abar. Eta beraiek egindakoak direnez, momentuan zuzendu egiten dituzu”. Errepikapenaren bortxaz, azkenean zerbait ikasi dutela iruditzen zaio.

Hirugarren urterako, euskarazko itzultzaile automatikoak hobekuntza handiak eginak zituen, bai Google itzultzaileak, bai –batez ere– itzultzaile neuronalak. Hizkuntza lantzerako orduan, ariketa batzuk egin ziren itzultzaile automatikoarekin itzultzen ikasteko; zehazki, itzultzaile automatikoak itzulitakoa txukun uzten. Horra zer iritzi duen irakasleak: “Unibertsitateko beste lan bat bezala kontsideratzen duzunean, errazera jotzen duzu, eta kontzientzia hori ez baldin badaukazu itzultzailearen bidez egiten duzu, eta kito. Baina itzulpen hori orrazten hasten

direnean, nik uste dut konturatu zirela errazera jo dezakezula, baina gero ez daukazula emaitza onak, eta hori ez dela bidea”. Horrez gain, itzulpen lanaren mugak ere ikusi dituztela uste du irakasle horrek, itzultzean ez baitute sortzen, eta ikasleei “gehien gustatzen zaiena sormen lana” delako.

Irakasleek ikusi dute, halaber, ikasleek dokumentazio lana egiten ikasteko egin duten bidea. “Egia da liburuak begiratzera eta ez daudela oso ohituta”, dio irakasleetako batek, baina informazioa bilatzeko ahalegina egin dutela ere azpimarratu du. “Lana ez da bakarrik informazioa idaztea; prozesu hori hasten da, informazio iturri fidagarrietan begiratzen laguntzetik”, gehitu du. Hor sartzen da ikasleei ulertaraztea informazioa ez dutela bakarrik Internet-etik hartu behar: “Hau da, edozer gauza ez da informazio iturri bat”.

Plagioari buruz ere hitz egin du irakasle horrek. Horri buruzko “sentsibilizazioa” egin nahi izan dutela azpimarratu du: “Nik uste kontzientziaz hartu dutela. Azaldu diegu komatxoak erabili behar direla, erreferentziak sartu behar direla...”.

Irakasle honek bilakaera ikusi du ikasleen lanetan: “Egia da hasiera hasiera batean errazera jotzen zutela, eta oso oinarritzko lana egiten zutela. Baina, poliki-poliki, nik esango nuke eboluzio bat egon dela, eta, bueno, ba, igual maila hain ona ez zeukatenak ere saiatu direla, hain zuzen, ongi egiten”. Azken emaitzarekin pozik dago: “Azkeneko artikulua, begira, nahiko txukunak dira. Nahiko ondo idatzita daude”.

Euskarari lotutako ikaste emaitzaz arduratu den irakasleetako batek uste du erabat bestelakoa zatekeela hizkuntzaren lanketa ez balitz Wikipediako artikuluekin lotu: “Zuk landu dezakezu ortografia, landu dezakezu gramatika, landu ditzakezu kalko okerrak... Mila gauza; baina horrek ez baldin badauka zerikusirik Wikipediarekin, azken finean, beraientzako da euskarazko klase bat, euskaltegi batera joango balira bezala, edo institutuko beste asignatura batera bezala”. Horregatik, irakaslea saiatu zen irakasten zuenak lotura zuzena izan zezan Wikipedian egiten ari zirenekin. Beste irakasle batek ere zera dio irakaskuntzari “mesede egiten diola horrelako proiektuak egiteak”.

Beste batek dio Wikipediako lanaren bidez “motibatuta ikusi” zituela, eta “oso balorazio positiboa” egiten duela. “Nik uste dut sekulako lana egin zutela. Batetik, inplikazio handia erakutsi zuten lana bera egiterakoan. Bigarrenik, jakinik idaztea bera ez dela agian gehien gustatzen zaiena”. Erantzukizunaren ideiaz ere aritu da: “Ze hori norbaitek gero irakurri egingo du. Orduan, zuri horrek ere presio pixka bat ematen dizu. Nire ustez, presio positiboa izan daitekeena”.

Beste irakasle batek ere berretsi du ideia hori: “Nik uste kontzienteagoak izan daitezkeela sortzen dutenak zabalpena izan dezakeela edo daukala. Ikasle batzuek esaten zuten hasieran

bertigo moduko bat ematen ziela”. Irakasle horren ustez “aberasgarria da ariketa erreal bat egitea, eta ez egitea notarekin gainditzeko ariketa hutsak”. Metodo horrek “ikasleen inplikazioa erraztu” duela dio. Ikasleak “gogo gehiagorekin” ikusteak motibazio are handiago eman dio irakasle horri.

Irakasleen ustez, ikasleek kalitatezko lana egin dute. Elkarriketatutako hiru irakasleek hala adierazi dute. Baina euskarazko Wikipediako arduradunak ere azpimarratu du, ikasleen lanek “kalitate minimoak betetzen” dituztela, nahiz eta lan guztiak ez izan maila berekoak. Astez aste lana fintzen eta hobetzen joan direla ikusi du. Batzuetan beste hizkuntzaren bateko Wikipediatik itzultzen zuten, “filtrorik gabe”, kontuan hartu gabe informazio gehiegi sartzen zen ala ez. Horrez gain, batzuetan konturatu ziren itzulpen horrek ez zuela funtzionatzen euskarazko Wikipedian: adibidez, gai orokorren bati buruzko artikuluren batean estatu zehatzen bateko datuak ematen badira nagusiki, datu horiek ez dute interesik Euskal Herrian. Gehienetan gertatzen da espainolezko bertsiotik itzultzea, eta orduan Espainiako datuak ager litezke edota Latinoamerikako herrialderen batekoak. Webgune batzuetatik egindako filtrorik gabeko beste itzulpen batzuen beste arazo bat izan da testu asko itzuli zutela, baina beste iturriak kontsultatzea ahaztuta.

Hala ere, azpimarratu du iturriei buruz asko ikasi dutela. “Ikasle batzuei entzun nien Google Scholar aipatzen, eta horrek asko poztu ninduen”, dio Wikipediako arduradunak. Dena den, honen ustez, oraindik askori falta zaie unibertsitateko ikasketa bidean erabili beharreko artikulua motetara joatea. Baina ulergarria iruditzen zaio, unibertsitateko lehen mailako ikasleak direla kontuan hartuta.

Irakaste-ikaste prozesua hurbiletik ikusi du, betiere kanpoko begiradatik. Iruditu zaio ikasleek ikasten dutela. Azpimarratu duena da testuaren antolaketan egin den lana. Horri lotuta edo hori laguntzeko, irakasleek ikasleei buru mapak egiten irakatsi zieten. Wikipediako arduradun honek oso ariketa interesgarria dela uste du, horri esker testuaren antolaketa errazago egin ahal izan dutelako. “Horrek etekina sortuko die gerora gidoigintzan arituko direnean”.

Euskarazko Wikipedian asko ari diren editore batzuek lan hobeak egiten dituztela dio, baina Wikipedian dauden artikulua gehienak ikusita, ikasleek sortutakoak maila onekoak direla uste du. Gainera, editore askok oso ekarpen laburrak egiten dituzte, eta gutxitan izaten dira hain artikulua sakonak. Alde horretatik, ikasleen ekarpenari esker, erreferentziazko artikulua sakonetan aurrerapen handia egin du euskaraz, Wikipediako arduradun horrek dioenez. Artikulu batzuk (biolina adibidez) egitea “oso inprobablea” dela dio, alegia ikasleek ez balute egin, ez zukeela inork egingo. “Artikulu luze bat sortzeak bi hilabeteko lana eskatzen dio wikilari bati. Euskaraz horrelakoak egiten dituztenak 20-30 gara. Urtean gehienez 100-150

artikulu sakon egin ditzakegu. Eta ikasgela batean hogeit hamar bat artikulu sortzen badira, aurrerapen handia da”.

Modulu horietan elementu grafikoak ere landu dira. Ikasleek eta irakasleek ez badituzte ere hainbeste azpimarratu, Wikipediako arduradunak garrantzia eman dio horri, elementu grafiko horiek asko jantzi dutelako Wikipediako edukia. Alabaina, wikilari askok idazten dute, baina grafismoa ez dute lantzen, eta hori “plus”-a dela dio.

Oro har, ariketa horrek Wikipediari egin dion ekarpena da funtsezko artikuletan ekarpen handia egiteko bidea. “Metodo bat aurkitu dugu hori hobetzeko”. Euskarazko Wikipediaren neurgailuetan gora egiteko aukera sortu dela dio.

Talde askok lana banatzen dute, baina koherentzia ziurtatu gabe. Beste batzuetan ardurak banatzen dituzte: batek idatzi, besteak editatu, besteak irudiak landu. Hain zuzen, hor ikusten da talde lan egokia.

5. Ondorioak

Artikulu honetan aztertu den ariketa emankorra izan da, hasteko, Wikipediarentzat. Ikasleen artean antolaketa bermatuz, haien lanaren jarraipena eta tutorizazioa eginez eta Wikipediako jendearen begiradapean, egun gutxiko epean artikulu sakon andana egin litekeela erakutsi da. 188 ikasleren artean 412 artikulu osatu edo berriak sortu dira. Hots, ikasle bakoitzeko 2,2 artikulu, batez beste (ikasle bakoitzeko 39.757 karaktere). Unibertsitateko ikasleei hainbat lan edo txosten luze egitea egokitzen zaie beren ikasketetan, eta Wikipediako ariketa ere halakoa izan da, baina irakasleak bakarrik irakurri eta zuzenduko lukeen lana izateko ordez, publikoari eskainitako lana izan da. Ekarpene ez da hutsala, euskal wikilariak urtean 100-150 artikulu sakon egiten baitituzte, eta ikasleekin egindako ariketa honekin, urtean beste 100 bat gehitu zaizkielako.

Beraz, zer sor liteke lankidetzaren eta metodo horren bidez eta zein da unibertsitateko ikasleek gizarteari ekar diezaioketena? Kasu honetan, euskarazko Wikipediak jauzi kuantitatibo eta kualitatiboa egitea eragin du ikasleen parte hartzeak. Wikipediako arduradunak pozik egon dira ekarpen horrekin. Nahiz eta ikasleen lanak beste norbaitek irakurtzea eta zuzentzea eskatu, Wikipediakoek balorazio ona egin dute. Beraz, bai, lankidetzaren metodo horrek balio du ikasleek gizarteari zerbait ekartzeko.

Eta horrek zertan laguntzen du ikaste prozesua, irakaskuntza-berrikuntzaren bidetik begiratuta? Ikasleen eta irakasleen ahotik aipatu diren hitzak “ardura” eta “sakontasuna” dira. Ikasi dute erantzukizunez egiten zenbait lan, bai informazio iturriak bilatzerako eta aipatzerako orduan, bai testua txukun idazten ahalegintzerako orduan. Plagioarekiko sentsibilizazioa ere aipatu da.

Irakasleek ere baikortzat jo dute irakasteko metodo hori, lan errealean oinarrituta osatu baitituzte beren saioak. Laburbilduz, landu diren ikaste emaitzak lan horietan islatu dira: ekimen kolaboratiboan parte hartu dute eta horrek Wikipediarekiko eta beren betekizunarekiko ikuspegia aldatzea eragin du; talde lanean aritu dira, talde lanak dituen gorabeherekin, baina ikasi dute taldean erantzuten ardura handiko zereginari; ikasi dute nola funtzionatzen duen iturri fidagarrien bilaketak eta aipatzeko moduak, eta ulertu dute zein garrantzitsua den iturri fidagarrietatik egitea lanak; egokitasunez eta zuzentasunez idazten ikasi dute, bakoitzak bere heineko bidea egin badu ere...

Ikerketak, hala ere, baditu bere mugak eta hobetzekoak. Batetik, talde lanean egindako lanen harira, ikerketak taldekide bakoitzaren inplikazioa neurtzeko mekanismo batzuk izan baditu ere, ez du neurtu taldearen kohesioa, taldearen funtzionamendua edota talde lanaren kalitatea. Hizkuntza zorroztasunaren neurketa ere ez da nahi bezain sakona izan. Horrez gain, ariketa horrek beste hainbat galdera ere sortzen ditu, ikerketan aipatu direnak, baina artikulua honetako ikerketa galderatik at gelditzen direnak eta aurrerago landu litezkeenak: Wikipediako lan hori egiteak zertan aldatu du ikasleek Wikipediarekiko zuten ikuspegia, fidagarritasunari begira? Zein ziren ikasleen ohiturak euskarazko Wikipediari dagokionez? Uste zutena baino garatuagoa al da?

Bibliografía

- Aibar, E., Lladós-Masllorens, J., Meseguer-Artola, A., Minguillón, J., & Lerga, M. (2015). Wikipedia at university: What faculty think and do about it. *The Electronic Library*, 33(4), 668–683. <https://doi.org/10.1108/EL-12-2013-0217>
- Alcazar, C., Bucio, J., & Ferrante, L. (2018). Wikipedia Education Program in higher education settings: Actions and lessons learned from four specific cases in Mexico and Argentina. *Páginas de Educación*, 11(1), 23. <https://doi.org/10.22235/pe.v11i1.1552>
- Beacco, J. C., Fleming, M., Gouiller, F., Thürmann, E. (2015). The Language Dimension in all Subjects. A Handbook for Curriculum Development and Teacher Training, 162. [http://www.coe.int/t/dg4/linguistic/Source/The Language Dimension in all Subjects.pdf](http://www.coe.int/t/dg4/linguistic/Source/The%20Language%20Dimension%20in%20all%20Subjects.pdf)
- Blas, S. D., & Zamora, M. (2019). El uso de wikipedia en entornos educativos como método pedagógico. *Pedagogías emergentes en la sociedad digital*, Vol. 1, 2019, ISBN 978-84-17934-04-0, págs. 73-80, 73–80. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7803560>
- Bravo, V. J., & Young, M. F. (2011). The Impact of a Collaborative Wikipedia Assignment on Teaching, Learning, and Student Perceptions in a Teacher Education Program. *Canadian Journal of Learning and Technology*, 37(3). <https://eric.ed.gov/?id=EJ960792>
- Caverly, D. C., & Ward, A. (2008). Techtalk: Wikis and Collaborative Knowledge Construction. *Journal of Developmental Education*, 32(2), 36–37.
- Claes, F., & Escolar, L. D. (2020). Wikipedia y universidades: Trabajo colaborativo en torno a universidades iberoamericanas. *Revista de educación*, 389, 243–266.
- Coyle, D., & Meyer, O. (2021). Beyond CLIL: Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning. Cambridge University Press.
- Forte, A., & Bruckman, A. (2006). *From Wikipedia to the Classroom: Exploring Online Publication and Learning*. <https://repository.isls.org/handle/1/3495>
- Lersundi, A. (2023). Arloetako alfabetatzearen azterketa batxilergoko diziplinarteko proiektu batean. Kasu azterketa [doktore tesia]. Mondragon Unibertsitatea. https://ebiltegia.mondragon.edu/xmlui/bitstream/handle/20.500.11984/5964/Amaia_Lersundi_Perez_Tesia.pdf?sequence=1&isAllowed=y

- Magdaleno, M. I. A., & García, J. G. (2013). Colaboración activa en wikipedia como método de aprendizaje. *RIED: revista iberoamericana de educación a distancia*, 16(1), 13–26.
- Meseguer-Artola, A. (2015). Wikipedia en la universidad: Una guía de buenas prácticas. *Oikonomics: Revista de economía, empresa y sociedad*, 3, 90–99.
- Meyer, O., Imhof, M., Coyle, D., & Banerjee, M. (2018). Positive learning and pluriliteracies. In *Positive learning in the age of information* (pp. 235-265). Springer VS, Wiesbaden. https://doi.org/10.1007/978-3-658-19567-0_15
- Morton, T. (2020). Cognitive discourse functions: A bridge between content, literacy and language for teaching and assessment in *CLIL*. *CLIL Journal of Innovation and Research in Plurilingual and Pluricultural Education*, 3(1), 7-17. <https://doi.org/10.5565/rev/clil.33>
- Obar, J. A., & Roth, A. (2011). *The Wikipedia Public Policy Initiative: Exploring the Potential Benefits of Using Wikipedia in the University Classroom as a Tool for Innovative E-Pedagogy* (SSRN Scholarly Paper ID 1923888). Social Science Research Network. <https://doi.org/10.2139/ssrn.1923888>
- Obregón-Sierra, Á., & González-Fernández, N. (2020). ¿Por qué no editan en la Wikipedia los alumnos universitarios? *Trípodos*, 46, 13–28.
- Ricaurte-Quijano, P., & Álvarez, A. C. (2016). El proyecto Wiki Learning: Wikipedia como entorno de aprendizaje abierto. *Comunicar: Revista científica iberoamericana de comunicación y educación*, 49, 61–69.
- Sahut, G., & Karen, C. (2015). Quand des lycéens contribuent à Wikipédia: Quelles évolutions de leurs connaissances informationnelles ? In M. Loicq & F. Rio (Arg.), *Les jeunes: Acteurs des médias. Participation et accompagnement* (or. 18). Editions du Centre d'étude sur les Jeunes et les Médias.
- Sarasa Cabezuelo, A. (2006). Usando la Wikipedia como motivación en el proceso de aprendizaje. *RELATEC: Revista Latinoamericana de Tecnología Educativa*, 5(2), 433–442.
- Soler, J., Pavlovic, D., & Font, P. F. (2018). Wikipedia en la Universidad: Cambios en la percepción de valor con la creación de contenidos. *Comunicar: Revista científica iberoamericana de comunicación y educación*, 54, 39–48.
- Van Kampen, E., Meirink, J., Admiraal, W., & Berry, A. (2020). Characterising integrated content-language pedagogies of global perspectives teachers in *Dutch bilingual*

schools. Language, Culture and Curriculum, 34(1), 18–34.
<https://doi.org/10.1080/07908318.2020.1732999>

Wheeler, S., Yeomans, P., & Wheeler, D. (2008). The good, the bad and the wiki: Evaluating student-generated content for collaborative learning. *British Journal of Educational Technology*, 39(6), 987–995. <https://doi.org/10.1111/j.1467-8535.2007.00799.x>